



ODOLAREN EDO GORPUTZEKO FLUIDOEN ERAGINPEAN JARRI OSTEKO JARDUKETA PROTOKOLOA

Odol bidez edo kutsatuta egon daitezkeen bestelako gorputzeko fluido bidez garraiatzen den patogeno honen eraginpean jartzea da osasun arloko langileen lan arrisku nagusietako bat. Larruazalean zeharreko kontaktu bidez (ziztada, ebakia, azal urratua) edo mukosen bidez gerta daiteke esposizioa.

Horregatik, odolaren edo fluido organikoen esposizio agresiboaren aurrean, urrats hauek egin behar dira:

a. Eraginpean jarritako zonako kutsadura ezabatu:

- Larruazal gaineko zipriztina bada: ahalik eta azkarren kenduko da materia organikoa, xaboi antiseptiko batekin garbituta.
- Konjuntiba-mukosaren gaineko zipriztina bada: azkar garbitu serum fisiologikoarekin.
- Aho-mukosaren gaineko zipriztina bada: garbitu ahoa povidona iododunarekin (% 10).
- Larruazalaren osotasuna aldatu bada (ziztada, ebakiak, urradurak, etab.): xaboi antiseptikoarekin garbitu, odola ateratzen lagundu eta zaurian antiseptikoren bat eman (povidona, klorhexidina, etab.).
- Berriz jarduerari ekin aurretik, erretiratu kutsatutako tresnak, eskuak ongi garbitu eta eskularru berriak jantzi.

b. Istripu biologikoa (ziztada, ebakia, etab.) jasan duen AZPko langileak, irakasle eta ikertzaileak edo ikasleak bere ikastegiko Administrazioari **jakinaraziko dio**, eta istripuaren inguruabarrak idatziz jasoko dira: lekukoak, artatutako pazienteak (hala badagokio), irakasle arduraduna, etab. Ondoren, Administrazioak Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko dio.

c. Ikaslea bada, Fakultateko Idazkaritzara joan beharko du, eta han **Eskola Aseguruaren** prestazioaren eskaera orri bat eta dagozkion tasak ordaindu izanaren egiaztagiri bat emango dizkiote. Han, ikasleak eta agintari akademikoak (administraria izan daiteke) inprimakia beteko dute.

Ikasleak helbide honetan aurkeztuko ditu agiriak:

GIZARTE SEGURANTZA (Eskola Asegurua)

Kale Nagusia 89 - Bilbo

Telefonoguneko tel.: 944284500

d. AZPko langilea bada, gertatutakoaren berri emango dio Prebentzio Zerbitzuari, **Lan istripuen mutualitatera** jotzeko.

Mutualia, 900 50 60 70

Irakaslea Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren erregimenekoa (MUFACE) bada, Prebentzio Zerbitzuari istripuaren berri eman ondoren aukeratutako osasun zentrorra joan beharko du.

Gogoan izan oso garrantzitsua dela sendaketa azkar egitea eta gero mediku batek ikustea. Infekzio biriko baten susmoa izanez gero, erretrobiralen erabilera baloratu beharko da.